

ZARAUTZ / Liburuaren eguna ospatzen da gaurkoan

ZARAUTZ. DV. Unescok gazteen arteko irakurketa sustatzeko asmoz sortu zuen Liburuaren Eguna. Gaur, apirilaren 23a literaturako egun berezia da, 1616ko egun berean Cervantes, Shakespeare eta Garcilaso de la Vega hil zirelako.

Liburutegian Liburuaren Nazioarteko Eguna hilabetez zehar ospatzen ari da eta jarduera ugari antolatu ditu. Gaurko Liburuaren egunerako, ondorengoak: gaur bertan mailegurik egiten duten erabiltzaileen artean liburuak zozketatuko dira; era berean, bai helduen baita haur liburutegian ere, aurreko urteetan bildutako aldizkariak ikusgai izango dira eta doan eskainiko zaizkie erabiltzaileei.

Eskuratzeko, liburutegiko txartela erakutsi eta etxera eraman ahal izango dituzte. Azoka hau gaurtik larunbata bitartean izango da.

Bestalde, ' Garoa ' liburu dendak ere ospakizunarekin bat egingo du. Honela, gaur liburuak erosten dituzten bezeroek, liburutegiko txartela erakutsita %10eko deskontua izango dute. Xedea irakurzaletasuna bultzatzea da.